



## SANTU GUZTIEN Eguna

Egun berezia dugu Santu Guztien Eguna, utzi gaituzten pertsonak oroitzeko eguna, hain zuzen ere. Bakoi-tzak bere modura ospatzen du; batzuk mahaiaren bueltan biltzen dira postre tradizional batekin, bertze batzuk kanposantua bisitatzen dute, badi-rra erritu desberdinak nahiago dituztenak... baina ezin ukatu eguneko protagonistak loreak direnik.

Hildakoei errespetua adierazteko modu ezin hobea dira lore eskaintzak, eta urteko sasoi honetarako lore egokienak aukeratzea inportantea da. Hauek dira Santu Guztien Egunari kolorea emateko lore hobere-  
renak:


**Urrelili** edo krisantemoak lore tradizionalak dira egun honetarako. Antzinako garaietatik hazten den lorea da, eta bere edertasun eta kolore aniztasunagatik, aukeratuene-takoa da oraindik gaur egun.

**Krabelina** ere forma eta kolore aunitzetako lorea da, polita eta usain goxokoa. Gainera, landare indartsua eta iraunkorra da, hortaz, kanposan-tua apaintzeko aproposa da.

**Zitoria** edo lilium lorea delikatu-  
goa da, baina bere edertasunak egun honetako protagonista bihurtu du. Gehiago irautea nahi badugu, gomendagarria da eguzki gehiegi ematen ez dion leku batean paratzea, agudoegi ez deshidratatzeko.

**Panikulata** edozein sortatan sar daitekeen lorea da; polita eta iraun-korra. Sortako protagonista bezala edo lore gehiagorekin batera, auke-  
ra ezin hobea da.

**Arrosa** loreen erregina da, klasikoe-tan klasikoena. Bakarrik zein lore sorta batean, bere edertasunagatik nabarmentzen den landarea da. Gomendagarria da itxiagoak daudenak aukeratzea, gehiago iraun dezaten.



**DOMISAINDU EGUNA**  
Azaroaren 1ean maite dituzunak  
loreekin gogoratu

**Txirula**  
Lesaka

Albistur 39 LESAKA T. 948 627 542 · 722 748 836

**MÁRMOLES  
AMEZTI**  
Desde 1994

**HILERRIKO  
PLAKAK ETA HILARRIAK**

info@marmolesamezti.com  
www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g. T. (+34) 948 592 325  
ORNOZ-MUGAIRI F. (+34) 948 592 295

Santu guztien  
egunerako

**IRIS**  
LOREDENA

aukera zabala

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

**ANTZUZELAI**  
S.L.

BERA  
T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK  
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK





*Bañueloak eta etxeko produktua*

Altzate, 21 · BERA · T. 948 630 786

LORE SORTAK  
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK  
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

Lore moztuen eskaerak urriaren 25era bitartean edo agenda bete arte

**ZU** lore denda dekorazioa osagarriak

Urriak 26 - 09:30-13:00 / 17:00-19:30  
Urriak 27 - 09:30-18:00

Altzate, 33 31780 BERA zulo redenda@hotmail.com  
Tel.: 948 625 786

OMIASAIN DURAKO LORE ETA LANDARE ESKAINTZA ZABALA



LOREAK ETA LANDAREAK

**Erreserbatu**  
omiasaindu egunerako loreak eta mintegian gordeko dizkizugu



Astelehenetik ortzirralera:  
09:00-13:00/16:30-19:00  
Larunbatak: 09:00-13:00  
Igandeak: 10:00-13:00  
Otsango auzoa · LESAKA  
T. 948 637 826

# «Jubilatuko banaiz ere, argi dut landare artean segituko dudala»

IXABEL ERRANDONEA ALZUGUREN BEKO LOREAK ETA LANDAREAK



Duela 35 urte hasi zen Ixabel Errandonea beratarra Lesakako Beko lore denda lanean, baina, azaldu duenez, «ordurako denda martxan zegoen, nire senarra hemen baitzegoen». Hala ere, lehenagotik esku ona zuen landareekin, izan ere, «Beran negutegi tiki bat genuen eta han aritzen nintzen». Ibilbide luzea du landare artean, eta aurtun hartuko du erretiroa.

## Urteak urte

Loreak zaintzea ez da batere lan erraza, hortaz, «hasieran Frantziara, Landa inguruetara joan ginen landareei buruz ikastera. Gainerakoa gure kabuz ikasi dugu». Izan ere, «praktika, denbora eta esperientzia» dira maisu hoberenak lorezaintzan.

Urteekin «aunitz aldatu da landareak erosteko ohitura. Lehen etxean bertan izaten zituzten loreak eta balkoiak pixka bat apaintzeko baka-rik erosten ziren; orain inguruetan paratzeko, etxe barneko loreak... denak erosten dituzte, eta hurrengo urtean aldatzen dituzte. Normala da, orain jende aunitzek etxetik kanpo egiten du lan eta ez dute hainbertzeko astirik landareei eskaintzeko».

Hori dela eta, dendako eskaintza ere garai berrietara moldatu dute: «sasoiaren arabera aldatzen da eskatzen diguten lore mota, lehen normalean geranioak izaten ziren eta orain surfiniak, kalibratxoak... modako loreak dira». Hala ere, «35 urteren ondotik bezeroak ongi ezagutzen ditut, haien gustuak ikasiak ditut, eta atetik sartzen diren momentutik badakit zer behar duten».

Eta noski, dendatik hainbertze pertsona pasatu ondotik, bitxikeria bat edo bertze ere badu kontatze-ko: «aspaldi-aspaldian, pertsona bat preso utzi nuen hemen barnean ixten ari nintzenean. Dena itzaltzen hasi nintzen eta aldatzera joan nintzen, eta bueltatzean denda itxi nuen. Tarte horretan bezero bat sartu zen nik ikusi gabe, eta barnean gelditu zen». Gogoratu duenez, «hagitz graziosoa izandu zen. Landareak freskatzeko aspertsorea itzali nuen eta joan nintzen, eta bezero horrek gero kontatu zidan bat-batean euria gelditu zela eta ate guziak itxi zirela». Hori gutti balitz, «urte batzuk beranduago, gauza bera gertatu zitzaigun bertze bezero batekin!».



Aukera handia  
kalitatezko produktuetan

*Santu guztien*  
*egunerako*  
Lore eskaintza  
zabala



Egiten duzun erosketaren  
%10 zure fideltasun  
txartelean gehituko dizugu.



**Landiflor**

Landiflor zure loredenda egunero irekia:  
9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00  
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com  
www.venta-peio.com

FR. +33 9 72 10 40 20

ES. +34 948 625 130



## SANTU GUZTIEN EGUNA

Oharriz Auza z/g · LEKARÓZ  
T.948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com  
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**HARRI LAN, S.L.**  
SERVICIO DE CANTAS



# MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK  
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

### Egun berezia

Santu Guztien Eguna hurbil dugu eta dendan ere prestaketekin hasiak dira, «leku aunitz behar izaten baita. Urteko egunik fuerteena da; denek gogoratu nahi dituzte haien hildakoak». Hori dela eta, «orain, azkeneko bi asteetan, mugimendu haundia izaten dugu. Lehen denbora gehiagorekin egiten zituzten eskaerak, irail bukaeran, eta loreak gordetzeko eskatzen ziguten. Orain ere bai, baina hagitzez beranduago hasten dira, azkeneko 15 egunetan edo». Hala ere, «kanposantura loreak eramateko ohiturak fuerte segitzen du».

Egun horrez gain, udaberria dute sasoirik jendetsuena dendan; «martxoan hasten da goi denboraldia eta apiril hondarrean eta maiatz osoan etortzen da batez ere jendea. Maiatzaren lehenbiziko egunetarako balkoiak apainduak izateko ohitura izaten dute batzuk».

### Etapa baten bukaera

Azaroaren 11n hartuko du erretiroa Errandoneak eta, aitortu duenez,

«pena haundiarekin» utziko du denda; «egunero etortzeko ohitura hartua dut eta nire errutina aldatu beharko dut».

Hala ere, «senarra eta bi semeak hemen geldituko dira eta pentsatzen dut noizbehinka bisita egitera edo laguntzera etorriko naizela. Dendak segida izanen du, ni urrunetik begira gelditzen banaiz ere, eta ongi moldatuko dira». Gainera, erretirata ere, argi du «ez naizela geldirik egonen. Lorerik gabe ezin naiz bizi, eta etxean bada ere, landare artean segituko dut».

Azkenik, «eskerrak eman nahi dizkiet bezero guztiei. Jende pila bat ezagutu dut urte hauetan guzietan eta hagituz gustura aritu naiz haiekin».

**«SENAR ETA SEMEAK  
HEMEN GELDITUKO  
DIRA ETA DENDAK  
SEGIDA IZANEN DU»**



**lafitte.**  
jardinerie

Jardinerie Lafitte  
84, 1945 maiatzaren 8ko etorb.  
64100 Baiona  
Tel.: 00 33 5 59 42 24 42

[drive.lafitte.net](http://drive.lafitte.net)  
[jardinerie@lafitte.net](mailto:jardinerie@lafitte.net)



**OMIASAINDU EGUNERAKO  
AUKERA ZABALA**

